BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4941

AGINDUA, 2011ko irailaren 14koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Donostiako Azcarate Enea Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuaren 2011-2012ko ikasturteko plangintza aldatzeko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko ekainaren 8ko Aginduaren bidez, 2011-2012 ikasturterako plangintza aldatzea eskatzeko inprimakiak eta 2010-2011 ikasturterako zenbat ikasgela itunduko diren onartu eta argitara eman ziren; era berean, eskabideak aurkezteko egutegia ere onartu eta argitara eman zen.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza premia bereziko ikasleei eskola orohartzaile eta integratzailearen esparruan eman beharreko erantzuna arautzekoak, 4.4 artikuluan ezartzen duenez, talde multiprofesionalak dagokion eskolatze-proposamena egin eta jarduketa-plana ezarriko du, ikasleen hezkuntza-beharrizan espezifikoen arabera; halaber, laguntza eta baliabide osagarriak ere zehaztuko ditu, hurrengo artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, betiere. Orobat, dekretu horren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko administrazio-xedapenak garatuko ditu, itunpeko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko behar diren baliabide espezifikoak zehazteko.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, 2011-2012 ikasturtean, egon badago hezkuntza premia bereziko ikasleak eskolatu beharra, autismo-arloko nahasmendu baten ondoriozkoa, eta behar hori hezkuntza bereziko unitate egonkorretan gauzatu beharrekoa izanik, beharrezko ikusi da Azcarate Enea HBIP itunpeko ikastetxea arduratzea halako ikasleen eskolatzeaz, berau baita eskolatze-mota horri erantzuteko gaitasuna daukan bakarra.

Donostiako Azcarate Enea Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuak baimena eskuratzeko baldintzak bete ostean, agindu honen bidez aldatu egiten da ikastetxe horren plangintza 2011-2012ko ikasturterako. Hortaz, honako hau

EBATZI DUT:

Donostiako Azcarate Enea Hezkuntza Bereziko ikastetxe pribatuaren 2011-2012ko ikasturteko plangintza aldatzea, agindu honi atxikitako eranskinean adierazitako moduan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 14a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

Gipuzkoa

Herria	Ikastetxearen izena	Irakasmaila	Izena	Taldeak 2011/12
Donostia- San Sebastián	CPEE Azcarate Enea HBIP	Hezkuntza Berezia 2 HI	Hezkuntza Berezia 2 (Itxia)	16